



2025SECG0001  
1.bilera: OHIKOA 2025/01/30

## TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN BILKURA-AKTA

BILERA ZK.: 01/2025  
EGUNA: 2025/01/30  
HASIERA ORDUA: 17:00  
AMAIERA ORDUA: 17:40  
TOKIA: Bilera gela, 2. solairua.

### **BERTARATUAK:**

Alazne Txurruka Allika, alkatea.  
Jon Riaño Ojanguren, bigarren alkateordea.  
Monica de Prado Paniagua, hirugarren alkateordea.  
Isidro Aristi Oruezabal, Elkarrekin Orain Deba

### **Bertaratzea desenkusatzan du:**

Asier Urain Buenetxea, lehen alkateordea.

**Idazkaria:** Jose Luis Salaberri Iñarra

### **ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK**

#### **1. Aurreko bilkurei akta onartzea, hala badagokio.**

Aurkeztu ziren 2024ko urriaren 24an eginiko bileraren akta, eta, gai-zerrendarako gairik ez zeudelako, 2024ko azaroaren 21ean eta abenduaren 12an egin behar ziren bilerak ez zirela egin jasotzen duten eginbideak, Tokiko Gobernu Batzarrak, onar zitzan.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, onartu zituen 2024ko urriaren 24an eginiko bileraren akta eta 2024ko azaroaren 21ean eta abenduaren 12an egin behar ziren bilerak ez zirela egin jasotzen duten eginbideak.

#### **2.- Urtarrileko Udalbatzarraren bileran jorratuko diren gaien azterketa.**

Alkateak azaldu zituen Osoko Bilkuraren gai zerrendako gaien buruzko informazio orokorra emanez.

Bereziki, Alkatetzaren hainbat Dekretuen eta lanpostuen zerrendaren buruzko xehetasunak eman zituen.

Halaber partaidetzazko aurrekontuetarako prozesuaren egoera azaldu zuen.

Tokiko Gobernu Batzarrak jakinaren gainean geratu zen.

### 3. Alokairurako dirulaguntzen 2024ko deialdiaren buruzko informazioa.

Idazkariak azaldu zuen hiru eskaera baino ez direla aurkeztu, hirurak direla onartzekoak, baina ebazpena emateko bi aukera daudela.

Eskaera batean alokairu kontratua 2023ko azaroaren 1etik 2024ko urriaren 31ra arte izan zela, eta horrek 12 hilabete horietan ordaindutako zenbatekoaren %35eko dirulaguntza jasotzeko eskubidea izango lukeela, guztira, 3.066,00 euro.

Beste bi eskaeren kasuan berriz, alokairuko kontratuak 2024an sinatu ziren, bata maiatzaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta bestea, azaroaren 1etik aurrerako ondorioekin. Bi kontratuek urtebeteko iraupena dute, eta, horrela, kasu horietan bi aukera daudela, 2024an izandako gastua aintzat hartzea eta 2025ean eskaera berri bat aurkez ditzaten, edo, bestela kontratuaren iraupen osoa hartzea kontuan.

Kudeaketa garbiagoa izan daitekeelakoan, Tokiko Gobernu Batzarrak 2024an izandako gastua aintzat hartzearen aldeko iritzia azaldu zuen. Horrela, 2024an izandako gastua aintzat hartuta, batek 8 hilabeteko gastuaren %35eko dirulaguntza jasoko du, hau da, 1.998,33 euro; eta besteak, bi hilabeteen izandako gastuaren %35a, 511,00 euro.

Dirulaguntzak horrela banatuz gero, 2024ko deialdiaren barruan emango diren dirulaguntzak, guztira, 5.575,33 euro izango dira.

Tokiko Gobernu Batzarrak alokairurako 2024ko deialdia azaldutako moduan ebaztearen aldeko adostasuna azaldu zuen, eta 2025eko deialdia ahalik eta azkarren onartu eta argitaratu dadin eskatu zuen.

### 4. Eskari eta galderak.

Ez zen egon eskaririk eta galderarik ere.

Horrenbestez, beste aztergairik ez zegoenez, 17:35ean amaitu zen Tokiko Gobernu Batzarraren bilera.

Joseluis Salaberri Iñarra  
Idazkaria



Alazne Txurruka Aliko  
Alkatea

